| IRAKASKUNTZA-GIDA | 2019/20 | | |
|---|---|---|---|
| Ikastegia | 135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi | Zikl. | Zehaztugabea |
| Plana | GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua | Ikastaroa | 1. maila |

## IRAKASGAIA

| | | |
|---|---|---|
| 25783 - Praxiologia Motorraren Oinarriak | ECTS kredituak: | 6 |

## IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Jarduera fisiko eta kirol jarduerek akzio mota berezia sustatzen dute: akzio motorra. Bai baliabide gisa (heziketa arlokoa adibidez) eta baita helburu gisa (aisialdia adibidez), jarduera fisiko eta kirol jarduerak lehen mailako fenomeno soziala osatzen dute eta balio porpioa duen aztergaia. Ikasgaia hau aberastasun kultural hau barnetik aztertzera bideratua dago hain zuzen, egoera motor hauen ezaugarrien ezagutzara,  joko eta kirol deiturikoak nagusiki praktika ludiko eta pedagogiko berehalako erreferenteak direnak

Akzio ludomotorraren oinarrizko elementuak aurkezten dizkio ikasleari, bai kontzeptu mailan eta baita modu operatiboan ere. Kirol jokoaren definiziotik abiatuz, motrizitatearen adierazpen desberdinen errepaso bat egingo da barne logikaren ikasketan jarduteko. Ikasleek kirol joko desberdinak analizatzeko konpetentzia bereganatuko dute jarduleek espazioarekin, denborarekin objektuekin eta beste jokalariekin mantentzen dituzten erlazioetan oinarrituz.

## GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Kirol jokoa bere ezaugarri bereizleen arabera definitu giza motrizitatearen esparru operatibo ulerkor batean eta gure eremu akademiko eta profesionalaren ikasketa objektu propio bezala aintzat hartuz. IKASKUNTZAREN EMAITZAK (IIEE): Praxiologia Motorraren printzipio epistemologikoak, eskuhartze motorraren modelo komunikatiboa.

2.  Kirol jokoa definitu eta aztertu, eta kirolaren akzio motor ludikoaren printzipio juridikoak azaldu, arau horiek jokalarien jokabide motorrekin duten erlazioa oinarrituz kirol jokoen arauak analizatzeko eta eraldatzeko gai izanez. IIEE: IE: -ludorama, etnomotrizitatea, iusmotrizitatea.

3. Kirol jokoak domeinu desberdinetan sailkatu, jarduleak ingurune fisikoarekin, materialarekin eta sozialarekin mantentzen dituen erlazioetan ondorioztatzen diren eremu bakoitzeko akzio printzipioak kontutan hartuz. IIE:  barne logika, unibertsal ludomotorrak.

4. Komunikazio motor motak ezagutu eta aztertu. IKASKUNTZAREN EMAITZAK:- Komunikazio motor motak ezagutu, -Joku motorren erlazio sozialak aztertzen gai izatea, - Komotrizitatea eta intermotrizitatea desberdintzen jakin.

5.      Bilketa teknologiak eta datuen tratamendua jarduera fisikoen eta kirolen zientzien arloan erabiltzen jakin (zeharkakoak). IIEE: Datu motak, datu taula horizontalak eta bertikalak eta kontsulta dinamikoak kalkulo horri gestore batean.

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1 Praxiologia motorra eta Heziketa fisikoa
1.1 Praxiologia Motorra
1.1.1 Paradigma aldaketa
1.1.2 Bereiztasuna eta espezifitatea
1.1.3 Akzio motorraren zientzia
1.1.4 Ikasketa objektua
1.1.5 Jokabide motorra

1.2 Eskuhartze motorra
1.2.1 Pedagogia, Hezkuntza eta Didaktika
1.2.2 Heziketa Efektuak
1.2.3 Eskuhartzearen eredu komunikatiboa

2. Jokoa, ordena eta motrizitatea
2.1 Jokoa arazo gisa
2.1.1 Ludomotrizitatea soluzioa ote?
2.1.1.1 Kirol Jokoak
2.1.1.2 Praktika arloak
2.2 Egoera ludomotorrak

2.2 Jokoa ordenamendu gisa

2.2.1 Arauek jokoak sortzen dituzte
2.2.2 Arauek akzioa bideratzen dute
2.2.3 Jokua arlo ontiko-praktikoa da
2.2.4 KJ eskunduntza iusmotor sistema bat da

2.3 Kirol iusmotrizitatea
2.3.1 KJ tekniko-juridikoak
2.3.2 KJ deontiko-juridikoak

3. Kirol jokoa sistema praxiologiko gisa
3.1 barne logika
3.1.1 sailkapena
3.1.1.1 ikuspuntu semiotorra
3.1.1.2 ziurgabetasuna
3.1.1.3 simplex S3
3.1.2 badago AM domeinurik?
3.1.2.1 motortasunaren G faktorearen hipotesia
3.1.2.2 transferentziaren hipotesia

4.komunikazio motorra
4.1 Komunikazio motorren sarea (KKMMSS)
4.1.1 propietateak
4.1.2 kirolen KKMMSS
4.1.3 KKMMSSen aukerak eta adibideak
4.2 Komotrizitatea eta intermotrizitatea
4.2.1 Komotrizitatea
4.2.2 Intermotrizitatea

## METODOLOGIA

- Testu irakurketa kritikoa eta argudiatua
- Konzeptu mapa eragiketa
- Kirol araudiren azterketa
- Behaketa orri informatikoren diseinua
- Kirol jokoen unibertsalen analisia eta irudikapena

## IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasgelako eskola-orduak | 45 | | 10 | | 5 | | | | |
| Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord. | 67,5 | | 15 | | 7,5 | | | | |

**Legenda:**
M: Magistrala — S: Mintegia — GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. — GO: Ordenagailuko p. — GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra — TI: Tailer Ind. — GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 40
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezinbestekoa izango da proba idatzia, praktikak eta taldeko lanak gainditzea gai izateko orokorrez. Lauhilekoan zehar ebaluazio-proben xehetasunak ohiko bitartekoekin jakinaraziko dira (zuzeneko saioa, posta elektronikoa, eGela...). Proba guztiak menperatzen ez badira askoz jota HIRUz kalifikazioa (SUSPENTSOA) lortuko da, gainditu ez diren probak ezohiko deialdirako geratzen.

Etengabeko ebaluazioan, ikasleak uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, horretarako, bederatzi asteko epea izango du ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita (art. 12.2).
Azken ebaluazioa izango denean, azterketen data ofizialean proba zehatzetara ez aurkezteak dagokion deialdiari uko egitea suposatuko du eta EZ AURKEZTEA kalifikazioa.

Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZEROz izango da (SUSPENTSOA).

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezinbestekoa izango da proba idatzia, praktikak eta taldeko lanak gainditzea gai izateko orokorrez. Etengabeko ebaluazioan, proba guztiak menperatzen ez badira askoz jota HIRUz kalifikazioa (SUSPENTSOA) lortuko da. Beste kasuetan, azterketen data ofizialean proba zehatzetara ez aurkezteak dagokion deialdiari uko egitea suposatuko du eta EZ AURKEZTEA kalifikazioa.

Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZEROz izango da (SUSPENTSOA).

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Irakasleak proposatuko lan zientifikoak eta adituen idatziak
- Heziketa fisiko moderno baterako ikuspuntuak / Pierre Parlebas ; [Itzultzaileak, Raúl Martínez de Santos eta Asier Oiarbide] – Bilbao: Universidad del Páis Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2016

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

Martínez-Santos, R. (2018). ¿ Juegos de palabras o palabras que juegan? Sobre la naturaleza jurídica de los juegos deportivos. CCD. Cultura_Ciencia_Deporte. 13(38), 183-194.

Raul Martinez-Santos, Daniel Castillo & Asier Los Arcos (2016) Sprint and jump performances do not determine the promotion to professional elite soccer in Spain, 1994–2012, Journal of Sports Sciences. 34(24), 2279-2285

Martínez-Santos, R. (2015). La comunicación práxica. Arqueología de un concepto (1ª parte: 1959-19770). Acción motriz(14), 33-50.

Oiarbide, A., Martínez de Santos, R., Usabiaga, O., Etxebeste, J., & Urdangarín, C. (2014). Efectos de los juegos de cooperación-oposición en el ánimo de los universitarios. Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación(25), 58-62.

Martínez de Santos , R. (2011). Pedagogía del entrenamiento. Un análisis elemental La pedagogía del deporte hoy: escenarios y desafíos (pp. 339-368): Nuova Cultura.

Martínez-Santos, R., Enjuanes, M., De la Cruz, E., Pino, J., & Crespo, D. (2009). Equilibrio competitivo en ACB: un estudio preliminar. Cuadernos de Psicología del Deporte, 9, 43.

Martínez-Santos, R., Crespo, D., De la Cruz-Sánchez, E., Enjuanes, M., & Pino-Ortega, J. (2009). Analysis and comparison of competitive balance in the Spanish ACB basketball league: a preliminary study. Revista de psicología del deporte, 18(3), 0397-0401.

Martínez de Santos, R. (2009). Principios y elementos de organización de la cantera de un equipo de fútbol. Acción motriz, 2, 61-77.

Martínez de Santos, R. (2008). Ludomotrizitatea eskola. Posible al da horrelakorik? Jakingarriak(63), 36-46.

Martínez de Santos, R., Los Arcos, A., Blanco-Villaseñor, A., & Sánchez, F. (2006). Lógica interna de las tareas y demanda energética en el entrenamiento del fútbol. Investigaciones en praxiología motriz, 173-187.

Martínez de Santos, R. (2002). La intermotricidad alterna. Actas del V Congreso de Ciencias del Deporte, Educación Física y Recreación. INEFC de Lleida.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

Parlebas, P. (2017). La aventura praxiológica. Ciencia, acción y educación física. Sevilla. Junta de Andalucía.
Parlebas, P. (2001). Juegos, deporte y sociedad. Léxico de praxiología motriz. Barcelona: Paidotribo.
Parlebas, P. (1996). Perspectivas para una educación física moderna (2ª edición). Málaga: Instituto Andaluz del Deporte
Parlebas, P. (1988). Elementos de sociología del deporte. Málaga: Junta de Andalucía: Universidad Internacional Deportiva.
Martínez de Santos, R. (2007). La praxiología motriz aplicada al fútbol
Hernández Moreno, J. y Rodríguez Ribas J. P. (2004). La praxiología motriz: fundamentos y aplicaciones. Barcelona: INDE.
Hernández Moreno, J. (1994). Fundamentos del deporte. Análisis de las estructuras del juego deportivo. Barcelona: INDE.
Lagardera, F., & Lavega, P. (2003). Introducción a la praxiología motriz. Barcelona: Paidotribo

**Aldizkariak**

http://accionmotriz.com/

**Interneteko helbide interesgarriak**

http://www.praxiologiamotriz.inefc.es/

**OHARRAK**